

### **1989-1994 JOSE ANTONIO SOMALO GIMENEZ**

1929ko maiatzaren 12an jaio zen Madrilén. 1957an sartu zen karrera judizialean eta epaile gisa aritu zen Gaztelan, Katalunian eta Mallorkan. Somalo Lan Magistratua izan zen Bartzelonan 1966. urtean. 1988. urtean Auzitegi Goreneko magistratu eta Bartzelonako Lurralde Auzitegiko presidente izendatu zuten. Kataluniako Auzitegi Nagusiko lehenengo presidentea izan zen, 1989tik 1994ra bitartean. 1994an lan-arloko eta gizarte segurantzako auziez arduratzen den Auzitegi Goreneko IV Salan sartu zen. 2000ko urtarrilaz geroztik, Kataluniako Aurrezki Kutxetako bezeroen defendatzailea da.

### **1994-2004 GUILLEM VIDAL ANDREU**

Guillem Vidal i Andreu Palma Mallorcakoan jaio zen 1941eko urriaren 29an. 1960an Bartzelonara joan zen, Zuzenbideko unibertsitate ikasketak burutzera. 1965ean epaile izateko oposizioak irabazi zituen eta familiako ohiturari jarraitu zion, bere aita ere magistratua baitzen. Bere lehenengo lanpostua Maónen bete zuen. Hiru urtez aritu zen bertan. 1970ean, aldiz, Sabadellen bete zuen bere lanpostua, bederatzi urtez. 1979an Palma Mallorcakora itzuli zen: lehenengo 3. zenbakidun Instrukzio Epaitegira joan zen eta, gero, Palmako Auzitegira pasatu zen. Eta 1987. urtean Palmako Auzitegiko presidente izendatu zuten, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiko presidente izan zelarik hamar urtez, 1994tik 2004ra bitartean. Palma Mallorcakoan hil zen 2007ko martxoaren 23an.

### **2004-2010 M<sup>a</sup> EUGÈNICA ALEGRET BURGUÉS**

M<sup>a</sup> Eugènia Alegret Burgués 1956ko martxoaren 22an jaio zen Bartzelonan. 1978. urtean Zuzenbidean lizentziatu zen Bartzelonako Unibertsitatean eta 1980an karrera judizialean sartu zen oposizio bidez. Epaile gisa aritu zen Lorcan, Frangan eta Sant Feliu de Llobregaten. 1983an Magistratu maila lortu zuen eta Barakaldon, Terrassan eta Bartzelonako 8. zenbakidun Lehenengo Instantziako Epaitegian egin zuen lan. 1991an Bartzelonako Auzitegian hasi zen lanean eta bertako sail zibiletako baten presidentea izan zen. 2004ko irailean Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiko presidente aukeratu zuten. Bere izendapenaz geroztik Justizia Auzitegi Nagusiko presidentzia kargua betetzen duen lehenengo emakumea da.

### **2010-2016 MIGUEL ÁNGEL GIMENO JUBERO**